

## ***Gaitasun mailak: esanahia eta puntuazio-tarteak***

Ikasleek zuzen erantzundako galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Gure ustez, **1. eta 2. mailetan dauden ikasleek ez dute gaitasuna eskuratu**, eta **3. edo 3+ mailakoek**, berriz, **espero den gaitasun-maila eskuratu dute**. Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:

		Tarteak			
		1. maila	2. maila	3. maila	3+. maila
Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna	Puntuazio zuzena	[0, 23)	[23, 29)	[29, 40)	[40, 45]
	Puntuazio eraldatua	[23,33; 366,65)	[366,65; 456,20)	[456,20; 620,40)	[620,40; 695,03]
Euskarazko hizkuntza gaitasuna	Puntuazio zuzena	[0, 19)	[19, 25)	[25, 37)	[37, 45]
	Puntuazio eraldatua	[95,25; 367,00)	[367,00; 452,81)	[452,81; 624,44)	[624,44; 738,86]
Matematika gaitasuna	Puntuazio zuzena	[0, 9)	[9, 14)	[14, 25)	[25, 28]
	Puntuazio eraldatua	[204,91; 356,65)	[356,65; 440,95)	[440,95; 626,41)	[626,41; 676,99]
Ingeleseko hizkuntza gaitasuna	Puntuazio zuzena	[0, 12)	[12, 18)	[18, 32)	[32, 38]
	Puntuazio eraldatua	[204,92; 364,51)	[364,51; 444,31)	[444,31; 630,49)	[630,49; 710,29]

**Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna:** (gehieneko puntuazioa: 45)

1. maila [0, 23)	2. maila [23, 29)	3. maila [29, 40)	3+. maila [40, 45]
<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun askoz txikiagoa erakusten du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa erakusten du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak gaitasuna eskuratu du. Oso ongi moldatzen da informazioa bilatzen, bai literala, bai hitzez hitzekoa ez dena edo sakabanatua dagoena.</p>	<p>Maila honetako ikasleak oso ongi eskuratu du gaitasuna.</p>
<p>Badu gaitasuna informazio guztiz literala eta lokalizatua ulertzeko. Arazoak daude, batez ere testu etenekin.</p>	<p>Informazio literala eta lokalizatua aurkitzen ahal du, baita testu etenetan ere.</p>	<p>Testu etenen informazioaren banaketa ulertzen du.</p>	<p>Informazioa aurkitzeko gai da, modu esplizituan adierazita ez egon arren edo sakabanaturik egon arren, testu mota zeinahi dela ere.</p>
<p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginei erantzuten ahal die betiere testuaren ulermen orokorra eskatzen ez bada edo inferentzia konplexuak egin behar ez badira.</p>	<p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginei erantzuten ahal die baina ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.</p>	<p>Testua bere osotasunean ulertzen du.</p>	<p>Ahalmen handia erakusten du testua osotasunean ulertzeko, interpretatzeko, eta ahalmen handia du, orobat, inferentziak egiteko.</p>
<p>Ez da gai testuaren edukiaz edo formaz hausnartzeko, haren kanpoko ezagutzak ez dira nahikoak eta ez ditu irakurtzen duenarekin erlazionatzen.</p>	<p>Testuaren esanahia uler dezake, baina zailtasunak ditu testua bere osotasunean ulertzeko.</p>	<p>Interpretazio-maila onargarria erakusten du, bai eta inferentziak sortzeko gaitasuna ere.</p>	<p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p>
<p>Haren adierazpen idatzian koherentzia-eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komuntadura-arazoak, preposizioen erabilera...).</p>	<p>Testuaren edukitari edo formari buruz hausnartzeko zailtasunak ditu; batzuetan, ez du erlazionatzen irakurtzen duena eta ezagutzen duena, eta hori traba da testua ulertzeko.</p>	<p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p>	<p>Haren ekoizpen idatzian oso ortografia akats gutxi dago eta azentu-markak zuzen erabiltzen ditu.</p>
<p>Ortografia-akats larriak egiten ditu.</p>	<p>Ekoizpen idatzian, 5 ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.</p>	<p>Ekoizpen idatzian 5 ortografia akats baino gutxiago daude. Perpausak batzuk besteekin ongi josiak daude.</p>	<p>Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.</p>
	<p>Testuaren barne-kohesioko akatsak izaten dira, eta perpausak oso egitura oinarrizkoa dute.</p>	<p>Maila honetan jada ez dago komuntadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia.</p>	<p>Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.</p>

**Euskarazko hizkuntza gaitasuna:** (gehieneko puntuazioa: 45)

<b>1. maila [0, 19)</b>	<b>2. maila [19, 25)</b>	<b>3. maila [25, 37)</b>	<b>3+. maila [37, 45]</b>
<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun askoz txikiagoa erakusten du.</p> <p>Badu gaitasuna informazio guztiz literala eta lokalizatua ulertzeko. Arazoak daude, batez ere testu etenekin.</p> <p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginei erantzuten ahal die betiere testuaren ulermen orokorra eskatzen ez bada edo inferentzia konplexuak egin behar ez badira.</p> <p>Ez da gai testuaren edukiaz edo formaz hausnartzeko, haren kanpoko ezagutzak ez dira nahikoak eta ez ditu irakurtzen duenarekin erlazionatzen.</p> <p>Haren adierazpen idatzian koherentzia-eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komuntadura-arazoak, preposizioen erabilera...).</p> <p>Ortografia-akats larriak egiten ditu.</p>	<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa erakusten du.</p> <p>Informazio literala eta lokalizatua aurkitzen ahal du, baita testu etenetan ere.</p> <p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginei erantzuten ahal die baina ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.</p> <p>Testuaren esanahia uler dezake, baina zailtasunak ditu testua bere osotasunean ulertzeko.</p> <p>Testuaren edukiari edo formari buruz hausnartzeko zailtasunak ditu; batzuetan, ez du erlazionatzen irakurtzen duena eta ezagutzen duena, eta hori traba da testua ulertzeko.</p> <p>Ekoizpen idatzian, 5 ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.</p> <p>Testuaren barne-kohesioko akatsak izaten dira, eta perpausek oso egitura oinarrizkoa dute.</p>	<p>Maila honetako ikasleak gaitasuna eskuratu du. Oso ongi moldatzen da informazioa bilatzen, bai literala, bai hitzez hitzekoa ez dena edo sakabanatua dagoena.</p> <p>Testu etenen informazioaren banaketa ulertzen du.</p> <p>Testua bere osotasunean ulertzen du.</p> <p>Interpretazio-maila onargarria erakusten du, bai eta inferentziak sortzeko gaitasuna ere.</p> <p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p> <p>Ekoizpen idatzian 5 ortografia akats baino gutxiago daude. Perpausak batzuk besteekin ongi josiak daude.</p> <p>Maila honetan jada ez dago komuntadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia.</p>	<p>Maila honetako ikasleak oso ongi eskuratu du gaitasuna.</p> <p>Informazioa aurkitzeko gai da, modu esplizituan adierazita ez egon arren edo sakabanaturik egon arren, testu mota zeinahi dela ere.</p> <p>Ahalmen handia erakusten du testua osotasunean ulertzeko, interpretatzeko, eta ahalmen handia du, orobat, inferentziak egiteko.</p> <p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p> <p>Haren ekoizpen idatzian oso ortografia akats gutxi dago eta azentu-markak zuzen erabiltzen ditu.</p> <p>Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.</p> <p>Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.</p>

**Matematika gaitasuna:** (gehieneko puntuazioa: 28)

<b>1. maila [0, 9)</b>	<b>2. maila [9, 14)</b>	<b>3. maila [14, 25)</b>	<b>3+. maila [25, 28]</b>
Maila honetako ikasleak matematika-gaitasun txikia du.	Maila honetako ikasleak espero baino gaitasun txikiagoa erakusten du.	Maila honetako ikasleak badu ikasturte honetan espero zen gaitasuna.	Gaitasuna oso ongi eskuratu duela erakusten du.
Oso galdera gutxiri erantzuten dio zuzen.	Galdera errazenei erantzuten die.	Ongi daki oinarrizko kalkuluak egiten, eta, gainera, zenbait ezagutza aplikatzeko gai da egiazko testuinguruei dagozkien egoerak ebazteko.	Ongi daki oinarrizko kalkuluak egiten, eta, gainera, zenbait ezagutza aplikatzeko gai da egiazko testuinguruei dagozkien egoerak ebazteko.
Gai da aurreko zikloari dagozkion oinarrizko kalkuluak egiteko.	Gai da 1. zikloari dagozkion oinarrizko kalkuluak egiteko.	Zenbakizko informazio gutxi izan arren, ulertzen ditu arrazoiketa logiko-matematikoa erabiltzea eskatzen duten egoerak.	Egoera ulertzen du, behar duen informazioa ateratzen du, gai da matematika-planteamenduari ekiteko eta badaki arrazoiketa matematikoa alde zuzeneko baldintzetara egokitzen.
Ez du egoera ulertzen eta ez ditu egoki ateratzen behar dituen datuak.	Ez du egoera ulertzen eta ez ditu egoki ateratzen behar dituen datuak.	Gisa berean, zuzen ebazten ditu bi urrats egitea eskatzen duten problemak.	Gutxienez bi urrats egitea eskatzen duten problemak ebazten ditu.
Ez da gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ez eta arrazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ebazteko ere.	Ez da gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ez eta arrazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ebazteko ere.	Proporzionaltasuna adierazten duten egoerak ulertzen ditu eta zatikizko zenbakiak erabiltzen ditu; badaki denbora-kalkulu errealek egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai da irudi geometrikoak egiazko bizitzan identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen du eta ongi moldatzen da txanponekin.	Proporzionaltasuna adierazten duten egoerak ulertzen ditu eta zatikizko zenbakiak erabiltzen ditu; denbora-kalkulu errealek egiten daki.
Ez ditu ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez ditu zatikizko zenbakiak erabiltzen.	Ez ditu ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez ditu zatikizko zenbakiak erabiltzen.	Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa. Espazioan moldatzen da eta simetria ezagutzen du.	Gai da irudi geometrikoak identifikatzeko egiazko bizitzan. Txanponen balioa ezagutzen du eta ongi moldatzen da txanponekin.
Arazoak ditu denbora kalkulatzeko eta txanponen balioa kalkulatzeko. Ez ditu irudi geometrikoak identifikatzen egiazko bizitzan.	Zailtasunak ditu denbora kalkulatzeko eta txanponen balioa kalkulatzeko. Ez ditu beti identifikatzen irudi geometrikoak egiazko bizitzan.	Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa. Espazioan moldatzen da eta simetria ezagutzen du.	Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa. Espazioan moldatzen da eta simetria ezagutzen du.
Ez da gai grafiko edo taula bat ulertzeko.	Grafiko bat egiten ahal du euskarri eta adibideekin, eta oso taula errazak interpretatu ere bai.		
Simetria identifikatzeko arazoak izan ditzake.	Planoko simetria ulertzen du.		

**Ingeleseko hizkuntza gaitasuna:** (gehieneko puntuazioa: 38)

<b>1. maila [0, 12)</b>	<b>2. maila [12, 18)</b>	<b>3. maila [18, 32)</b>	<b>3+. maila [32, 38]</b>
<p>Maila honetako ikaslea gai da informazioa ulertzeko baldin eta literala, esplizitua eta erraz lokalizatzeko modukoa bada. Hala ere, zailtasunak ditu interpretazio-maila jakin bat eskatzen duten galderei erantzuteko. Testu etenak arazotsuak izan daitezke.</p> <p>Ez ditu ulertzen zikloan landutako hitz oso oinarrizkoak.</p> <p>Gai da soil-soilik bere errutinen deskribapen oso labur eta oinarrizkoa idazteko: gramatikako hutsegite anitz egiten ditu, idazten duena ulertzeko oztopo direnak.</p> <p>Gainera, zailtasun handiak ditu audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten die hitzez hitzeko informazioa ulertzea eskatzen duten galderei, baita ulermen maila handiagoa eskatzen duten testuak edo testu etenak direnean ere.</p> <p>Maila honetako lexikoa 1. mailakoa baino zabalagoa da. Nolanahi ere, zailtasunak ditu testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan. Ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.</p> <p>Idaztean, zailtasunak ditu bere errutinak deskribatzeko, eta idazten duena ulertzea galarazten ahal duten hutsegiteak ditu.</p> <p>Gai da audio mezu simple batzuk ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez) eta, gainera, edukiaren banaketa ulertzen du, eta badaki non aurkitu informazio berariazko bat testu eten batean. Testua bere osotasunean ulertzen du eta hitzez haratago interpretatzeko gai da.</p> <p>Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen du eta horrek aukera ematen dio egoerak eta ekintzak ulertzeko ingurua zabaltzeko.</p> <p>Gai da bere eguneroko ohiturak deskribatzeko, testua ulertzea eragozten ez duen akatsen bat egiten badu ere.</p> <p>Gai da zikloari dagozkion audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez) eta, gainera, edukiaren banaketa ulertzen du, eta badaki non aurkitu informazio berariazko bat testu eten batean.</p> <p>Konplexuagoak diren horiek ere ebazten ditu, interpretazio-maila handiagoa eskatzen dutenak, edo hiztegi edo egitura sintaktiko konplexuagoko testuetakoak.</p> <p>Gai da bere eguneroko ohiturak deskribatzeko zikloaren mailari dagozkion testu koherente eta zuzen baten bitartez.</p> <p>Arazorik gabe ulertzen ditu zikloaren mailari dagozkion audio mezuak.</p> <p>Laburbilduz, gaitasun handia erakusten du ebaluaturiko hiru trebetasunetan.</p>